# DEKRETUA/DECRETO

**Espediente zk./ Expediente nº:** 622/2025
**Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen**
**Prozedura/ Procedimiento:** Alkatearen eskumenak eskuordetzea/ Delegación de atribuciones de la alcaldía

**BEATRIZ GAMIZ MATA (1, guztira 1)**
Alcaldesa / Alkatea
Sinaduraren data: 04/04/2025
HASH: 4741c89a4d1489028fdfbfabc1a3a57d
ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

## EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Pedro Gallego Monteiro PSE-EE/PSOE taldeko zinegotziak bere karguari uko-egitea aurkeztu zuen 2025eko martxoaren 31n, data horretatik aurrerako ondorioekin.

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 9.4 artikuluak adierazten duenez, zinegotzi-izaera galtzen da, besteak beste, uko egiteagatik, eta hori idatziz gauzatu beharko da Udalbatzaren Osoko Bilkuran.

Era berean, Tokiko ordezkaritza-karguak ordezteari buruzko Hauteskunde Batzorde Zentralaren urtarrilaren 30eko 1/2025 Instrukzioaren 2. artikuluaren arabera, uko egitea ez izango da eraginkorra – eta, beraz, ezeztaezina –Udalbatzak horren berri duen unera arte.

2025eko urtarrilaren 29ko 2025-0220 zk.ko Alkatetza Dekretuaren bidez, aipatutako korporatiboari eskuordetu nizkion Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirol Arloari zegozkion eskumenez baliatzeko eskuduntza orokorrak, Kultura eta Gazteria Kudeatzeko Unitatean eta izen bereko

El concejal del grupo municipal PSE-EE / PSOE, Pedro Gallego Monteiro, presentó el 31 de marzo de 2025 su renuncia al cargo, con efectos desde esa fecha.

El artículo 9.4 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales señala que se pierde la condición de concejal, entre otras causas "por renuncia, que deberá hacerse efectiva por escrito ante el Pleno de la Corporación".

A su vez, el apartado Primero.2 de la Instrucción 1/2025, de 30 de enero, de la Junta Electoral Central, sobre sustitución de cargos representativos locales prevé que "la renuncia solo será efectiva –y por tanto irrevocable– en el momento en el que el Pleno del Ayuntamiento tome conocimiento de ella (…)".

Mediante Decreto de Alcaldía nº 2025-0220, de 29 de enero de 2025, delegué en el mencionado corporativo las atribuciones genéricas en el ejercicio de las competencias propias del Área de Educación, Cultura, Juventud y Deportes

Baliozkotze Kod.: 49S9C369EZAQ2ADPAMXWH74HN
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 3

kontseilu sektorialetan, ebazpen horretan deskribatutako preskripzio eta baldintzetara atxikita.

Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak eraentzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 43 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, honako hau

en la Unidad de Gestión de Cultura y Juventud y Consejos sectoriales del mismo nombre, con sujeción a las prescripciones y condiciones descritas en dicha Resolución.

En consecuencia, de conformidad con lo establecido en el artículo 21.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y 43 y siguientes del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluaren arabera.

En virtud del articulo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

## EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

**AURRENA**.- 2025eko urtarrilaren 29ko 2025-0220 zk.ko Alkatetza Dekretuaren bidez Pedro Gallego Monteiro PSE-EE /PSOE udal taldeko zinegotziari egindako eskumen-eskuordetza baliogabetzea.

**BIGARRENA**.- Gallego Monteiro jaunari ebazpen hau jakinaraztea.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**LAUGARRENA**.- Udal Osoko Bilkuran ebazpen honen berri ematea, organoak egiten duen hurrengo bilkuran.

Ermuan.

**PRIMERO.-** Revocar la delegación de competencias aprobada por Decreto de Alcaldía nº 2025-0220, de 29 de enero de 2025, en favor del concejal del grupo municipal PSE-EE / PSOE, Pedro Gallego Monteiro.

**SEGUNDO**.- Notificar la presente Resolución al Sr. Gallego Monteiro.

**TERCERO**.- Proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**CUARTO**.- Dar cuenta de la Resolución al Pleno de la Corporación en la primera sesión que celebre.

En Ermua.

Baliozkotze Kod.: 49S9C369EZAQ2ADPAMXWH74HN
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 3

Ermuan, marjinan adierazitako data horretan.

En Ermua en la fecha en el margen indicada.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

Baliozkotze Kod.: 49S9C369EZAQ2ADPAMXWH74HN
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 3